



Arartekoaren 2023R-2175-23 Ebazpena, 2023ko irailaren 26koa. Honen bidez, Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Sailari gomendatzen zaio berrius ditzala 2023-2024 ikasturtera begira adina dela-eta eskola-eguna murrizteko egin diren eskaerei emandako ezespeneak eta, bat etorrita 2023-2024 ikasturterako lan-baldintzen akordio erregulatuarekin jasotzen den araubidearekin, eskaerok baimendu ditzala. Sail horrek eskaerok ezetsi ditu, interesdunek aukera dutelako borondatez erretiratzeko.

Aurrekariak

1. 2023-2024 ikasturtea hasi aurretiko jarduketan harira, zenbait pertsonak Arartekora jo zuten, eskatzeko erakundeak esku har zezala Hezkuntza Sailaren erabaki baten aurrean: adina dela-eta eskola-eguna murrizteko aukera ez aplikatzea erabaki zuen sail horrek.

Murrizketa-figura horrekin, unibertsitateaz kanpoko ikastetxe publikoetako irakasleek oro har egotzita dituzten eskola-orduen herena murriztu daiteke, eta dagokion zentroko zuzendaritzak erabakitzen du zer egin murriztutako orduokin; hau da, zuzendaritzak erabakitzen du zer eginkizun zehatz esleitu murrizketa eskuratzen dutenei (eginkizunotan, ezin da eskolak ematea egon).

Kexagileek azpimarratu zuten, aurreko ikasturteetan murrizketa onetsi zieten, baina oraingo ikasturterako egindako eskaerak ezetsi dizkiete, erretiroa borondatez hartzeko aukera dutela argudiatuta.

Horri buruz adierazi zuten borondatezko erretiro aurreratua eskatuz gero ehuneko handi batean txikituko litzaiekeela pentsioa, Gizarte Segurantzak aplikatzen dituen koefiziente murriztaileak direla-eta, nahiz eta kasu batzuetan 40 urte baino gehiagoko kotizazioa egiaztatu.

Hala, adierazi zuten, geratzen zitzaien aukera bakarra zen 63 urtetik aurrera eskola-egun osora itzultzea, eta horrek, haien kontakizunari jarraikiz, murrizketa-figura horren helburuarekin kontraesanegoteaz gain (uste baitute zenbat eta zaharrago, orduan eta handiagoak izan beharko lirakeela irakasleei laguntzeko neurriak), egoera bidegabea eragiten die adin horretara ez iristeagatik edo kotizazio-urte nahikorik ez edukitzeagatik figura hori aplikatzen zaienei ere.

Kexagileek oinarrizko araudian xedatzen denari heldu zioten, 55 urtetik gorako irakasle publikoei eskola-eguna murrizten laguntzeari dagokionean.





Azkenik, "Akordio baterako proposamena. Irakasle funtzionarioen mahai sektoriala (2018/05/14)" izeneko dokumentuaren testua ezagutzen zutela ziurtatu bazuten ere, zeinaren arabera eskola-eguna murriztu baitaiteke borondatezko erretiroa hartu ezin denean, azpimarratu zuten gaur egun indarrean dagoen akordio erregulatzaileraren 61. artikulua¹ oro har eusten diola 65 urtetik beherako langileek eskola-egunaren herena murrizteko aukerari, baldintzarik ezarri gabe. Bada, uste zuten xedapen hori beraiei aplikatu dakiekeela.

Illo horretan, nabarmendu zuten akordio erregulatzailea ez dutela baliogabetu eta horixe dela, hain zuzen ere, dekretu-bidez onetsi eta Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu den tresna bakarra; hortaz, haien iritziz, eta azken batean, eskola-eguna murrizteko eskaerak ezesteak kontra egiten dio testu horretan argi eta garbi xedatutakoari, baliozko justifikazio juridikorik gabe.

2. Kexei tratamendu egokia emate aldera, Arartekoak honako gai hauei buruzko informazioa eskatu zion Hezkuntza Sailari: aipatutako gogoetak, lan-baldintzen akordio erregulatzailea ez aplikatzeko justifikazio juridikoa eta, hala badagokio, hezkuntza-administrazio horrek eskaeren ezespena berrikusteko duen prestasuna.
3. Hezkuntza Sailaren erantzun-txostenean honako hau adierazi zen:

"Arartekoaren 2023ko abuztuaren 17ko idazkia jaso da, erreferentziako gaiari buruzkoa. Bertan, honako hau eskatzen digu: "Erakunde honi honako hauen berri ematea: kexan adierazitako gogoetak, lan-baldintzak arautzen dituen Akordioaren artikulua hori ez aplikatzea eragin duen justifikazio juridikoa, eta, hala badagokio, hezkuntza-administrazio horrek eskaeren ezespena berrikusteko duen jarrera."

Irakasle funtzionarioen mahai sektorialaren 2018ko maiatzaren 14ko akordiorako proposamenak, 11. puntuan, irakasleen akordio arautzailearen 61. artikuluan jasotako adinagatiko eskola-orduak murrizteko baimena garatzen du, eta baimen hori emateko baldintza da irakasleek ezin izatea borondatezko erretiroa hartu. Proposamen hori 2018an sinatu zenetik, irakastorduak adinagatik murrizteko baimena emateko urteroko deialdiek baldintza hori jaso dute, eta, beraz, ez da gertaera berria.

Hala ere, jakin badakigu azken urteotan gertatzen ari diren lege-aldaketek, bai pentsioen esparruan (koefiziente murriztaileak aplikatzea), bai erretiro-adinean, eragina izaten ari direla, zeharka, adinagatiko eskola-orduak murrizteko baimenean. Errealitate berri horiei erantzuteko, Administrazio hau sindikatuarekin negoziatzen ari da gaur egun, Akordio Arautzailea aldatu eta egokitzeko.

Administrazio honek arrazoi horrengatik ezetsitako eskaerak berrikusteko duen prestasunari dagokionez, jakinarazi behar dizuegu Hezkuntza Saileko aholkularitza juridikoa aztertzen ari dela eskola-orduak murrizteko deialdiaren behin betiko ebazpenaren aurka aurkeztutako gora jotzeko

¹ Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitateaz kanpoko irakasle funtzionarioen lan-baldintzak arautzen dituen akordioa, uztailaren 6ko 185/2010 Dekretuak onartu zuena.



errekurtsua, eta, beraz, Araubide Juridiko eta Zerbitzuen Zuzendaritzaren ebazpenek duten zentzuaren arabera izango dela Administrazio honen jardura.”

Gogoetak

1. Lan-baldintzen akordio erregulatzaileraren 61. artikuluan ezartzen dira adinagatik eskola-eguna murrizteko aukerak, honela:

“61. artikulua.- Orduak murriztea.

1.- Irakasjardunaren murrizketak mantenduko dira 60 urtetik goragoko irakasle funtzionarioentzat. Horiek bakarrik aplikatuko zaizkie 65 urte baino gutxiago dituzten funtzionarioei eta, 65 urte beteta izan arren, erretiroa hartzeko eskubidea kausatzeko beharrezko gabezia-aldia estalita ez dutenei.

Batzorde paritarioak banaka aztertuko du neurri hori aplikatu ala ez premia egiaztatuta izan eta 65 urte beteta duten beste irakasle batzuei.

2.- Haur Hezkuntzan eta Lehen Hezkuntzan lanean diharduten 59 urte baino gehiagoko irakasleek gehienez 2 orduz ordeztu ahalko dute astean duten irakasjardunetik. Hezkuntza administrazioak emandakoen jardura jakin batzuen artean eman beharko dute denbora hori ikastetxean bertan.

Gainerako hezkuntza-mailetan ere gauza bera egin ote daitekeen aztertuko du Batzorde Paritarioak, egon dauden langileak kontuan hartuta.”

Transkribatutakoaren antzeko testua aurki dezakegu 2007an sinatutako akordio erregulatzaileraren 57. artikuluan², eta aurreko testuek ere jasotzen zuten 60 urtetik gorakoei eskola-eguna murrizteko aurreikuspena, baita figura hori 65 urtetik gorakoei (luzapenagatik zerbitzu aktiboan daudenei) hedatzeko aukera ere³.

Hala, une honetan aplika daitekeen araudiaren arabera, indarrean jarraitzen du adinagatik eskola-eguna murrizteko araubideak, aurretik (1998tik gutxienez) erabiltzen zen araubide horrexek, zeinaren arabera murrizketa horri hel baitiezaiokete 65 urtetik beherakoek, borondatezko erretiroari inolako aipamenik egin gabe.

2. 2018ko maiatzaren 14an, Hezkuntza Sailak eta irakasleen ordezkariak dokumentu bat sinatu zuten, *“Akordio baterako proposamena. Irakasle*

² Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitateaz kanpoko irakasle funtzionarioen lan-baldintzak arautzen dituen akordioa, urriaren 23ko 182/2007 Dekretuak onartu zuena.

³ Urriaren 1eko 228/2002 Dekretuaren bidez onetsitako akordioaren 73. artikulua eta uztailaren 28ko 197/1998 Dekretuaren bidez onetsitako akordioaren 19. artikulua.



funtzionarioen mahai sektoriala (2018/05/14)” izeneko, eta dokumentu horren 11. artikulua honela xedatzen du adinagatik eskola-eguna murrizteko aukera:

“Proposamen honen helburu nagusia da aurretiazko borondatezko erretiro-ukerarik ez duten adin batetik aurrerako langileei lan-karga arintzea, belaunaldi-erleboia ere sustatzearekin batera.

Hauxe da proposatzen dena:

- *Aurretiazko borondatezko erretiro-ukerarik ez duten 60 urtetik gorako irakasle funtzionario karreradunentzat: 1/3ko murrizketa ordu lektiboetan*
- *Haur eta Lehen Hezkuntzan, 59 urtetik gorako irakasleentzat (funtzionario karreradun zein bitartekoentzat): 2 orduko murrizketa asteko ordu lektiboetan*

Kasu guztietan, murrizten dena jardunaldi lektiboa da, eta ez lan-jardunaldia. Murrizketa-ordu horiek zuzendaritzaren esku eta ikastetxearen zerbitzuan jarriko dira, besteak beste, kudeaketa-lanetarako eta ikasleen arreta zuzenerako ez diren beste jarduera batzuetarako.

Ordu lektiboen murrizketa baliatu nahi duen irakasleak, irailaren 1ean baldintzak betetzeaz gainera, berariaz egin beharko du eskaria, zehaztuko den moduan eta epean, ordu-kopuru horiek ikasturte berrirako plangintzan kontuan hartuak izan daitezen, eta beste irakasle batzuei esleituak (ordezkapenarekin izango dira, beraz).

Prozedura, egutegia eta aplikazioa:

Akordiora ailegatuz gero, ordu lektiboen murrizketak 2018-19 ikasturtearen hasieratik aplikatuko dira.

Ordu lektiboen murrizketa bitarteko irakasleei zabaltzeko aukera zein baldintzatan emango den berehala eta gehienez sei hilabeteko epean aztertu eta negoziatuko da, eta ahalik eta arinen aplikatuko da.”

Testua ikusirik, ohartarazi beharra dago proposamenak araubidea aldatu duela; izan ere, ordura arte aurreikusi gabeko betekizun bat sartu du: inguruabar berri baten mende utzi du langileen zati handi batek ordura arte aitortuta zeukan eskubidea. Bada, borondatez erretiroa ezin hartzea da inguruabar berri hori, eta, hortaz, aukera hori dutenek ezin dezakete baliatu adinagatik eskola-eguna murrizteko aukera.

Horrenbestez, ez gaude araudiaren garapen huts baten aurrean, Hezkuntza Sailak erakunde honen informazio-eskaerari erantzun moduan, araudiaren aldaketa nabarmen baten aurrean baizik, proposamenaren asmoak eta emaitzak helburu dutelako eskubidea aitortzeko betekizunak bestela erregulatzea. Horrek, azken buruan, eskubidea bera aldatu du.

Beraz, batetik, aldaketa jasotzen duen testuaren izaera aztertu beharko da, eta, bestetik, egiaztatu egin beharko da oinarritzko araudiak indarreko araudi bati mota honetako jarduketa bat egiteko ezartzen dituen betekizunak bete ote diren.



3. 2018an sinatutako dokumentuak oinarritzko proposamentzat jotzen du testua; hau da, gero (negoiazio kolektiboaren ondoren) adostu beharko den akordio baten abiapuntutzat.

Hala, honako hau adierazten dute testuaren sarrerako paragrafoek:

“Gaur ekartzen den dokumentu honek eskaera horiei⁴ eman nahi die erantzun, eta oinarritzko lehen adostasun zabal bat jaso eta akordio global eta zabalagoetara ailegatzeko abiapuntu izateko asmoz eta gogoz aurkezten da.”

Bestetik, 11. apartatuak, adinagatik eskola-eguna murrizteko aukerari buruzkoak, honako hau adierazten du, gorago esan bezala:

“Akordiora ailegatuz gero, ordu lektiboen murrizketak 2018-19 ikasturtearen hasieratik aplikatuko dira.”

Amaitzeko, dokumentuaren azken xedapenak honako hau esaten du:

“Dokumentu hau izenpetzeak ez du esan nahi hemen egiten diren baitapen guztiak alde guztiek ahobatez eta osotasunean onartzen dituztenik; bai ordea, hemen jasotzen diren proposamenak onuragarri izango direla irakasleen lan-baldintzen eta hezkuntza-sistemaren hobekuntzarako.

Halaber, akordio baterako proposamen hauek irakasleen lan-baldintzen akordio global berria lortzeko abiapuntutzat hartzen dugu Hezkuntza Sailak eta sindikatuek. Akordio global hori landu, negoziatu eta lortu bitartean, eta Saila eta sindikatuen arteko negoziazioak etengabe eta normaltasun-giroan garatzen direlarik, hemen proposatzen diren neurrien aplikazioaren bitartez irakaskuntza-zerbitzu publikoa eta irakasleen lan-baldintzak gero eta hobekiago izan daitezkeen ahalegintzeko konpromisoa hartzen dugu Hezkuntza Sailak eta adostasuna adierazten dugun sindikatuok

Hori guztia adierazitako baldintza eta moduetan bideratzeko asmoz, kasuan kasuko Mahai Sektorialak, Planifikazio Batzorde Teknikoak eta akordio honen Segimendu-Batzordeak deitutako kronograman zehaztutako datetan.

Helburu horiek guztiak gogoan, eta proposamen honetako neurriak aurreikusitako uneetan indarrean ezartze aldera, Hezkuntza Sailak eta alde sozialaren gehiengoak dokumentu hau izenpetzea adosten dute.”

Horren arabera, ez du ematen testuak aldean arteko negoziazio kolektiboaren ondoriozko akordioek berezkoa duten izaera duenik; izan ere, batetik, aldeek ez dituzte sinatu dokumentuak jasotzen dituen adierazpen guztiak, eta, bestetik, geroagoko akordio bati egiten zaio aipamena: akordio horrek negoziazio-prozesu bat izan beharko du atzean, eta, prozesuan, kontuan hartu beharko dira dokumentuan jasotako proposamenak. Berez, aurreikusi denez, kronograma batean islatu beharko da prozesua, baina ez dugu horri buruzko datu gehiagorik.

⁴ Parte sozialak egindako eskaerak, zenbait puntu berrikusteko eta egutegia eta berme-mekanismoak gehiago zehazteko aurkeztu zituenak.



Adinagatik eskola-eguna murrizteko aukerari buruzko apartatuak esaten duenez, akordioa lortzen denean jarriko dira indarrean proposatzen dituen neurriak, eta, dokumentuaren idazketa osoa ikusirik ematen duenez, aurreikusitako negoziazio-prozesu baten ondoriozko akordioa sinatutakoan izango da hori, proposamen-dokumentua bera sinatzeaz ariko balitz indarraldia ez litzatekeelako egongo akordioa lortzearen mende: nahikoa izango litzateke data aurreikustea.

4. Enplegu publikoaren oinarrizko araudiak ezartzen ditu lan-baldintzei buruzko edozein negoziazio kolektibok izan behar dituen printzipioak eta betekizun material eta formalak, delako negoziazioa erabat baliozkoa eta eraginkorra izan dadin.

Hala, Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren 38. artikulua arabera⁵,

“1. En el seno de las Mesas de Negociación correspondientes, los representantes de las Administraciones Públicas podrán concertar Pactos y Acuerdos con la representación de las organizaciones sindicales legitimadas a tales efectos, para la determinación de condiciones de trabajo de los funcionarios de dichas Administraciones.

2. Los Pactos se celebrarán sobre materias que se correspondan estrictamente con el ámbito competencial del órgano administrativo que lo suscriba y se aplicarán directamente al personal del ámbito correspondiente.

3. Los Acuerdos versarán sobre materias competencia de los órganos de gobierno de las Administraciones Públicas. Para su validez y eficacia será necesaria su aprobación expresa y formal por estos órganos. Cuando tales Acuerdos hayan sido ratificados y afecten a temas que pueden ser decididos de forma definitiva por los órganos de gobierno, el contenido de los mismos será directamente aplicable al personal incluido en su ámbito de aplicación, sin perjuicio de que a efectos formales se requiera la modificación o derogación, en su caso, de la normativa reglamentaria correspondiente. (...)

Cuando exista falta de ratificación de un Acuerdo o, en su caso, una negativa expresa a incorporar lo acordado en el proyecto de ley correspondiente, se deberá iniciar la renegociación de las materias tratadas en el plazo de un mes, si así lo solicitara al menos la mayoría de una de las partes. (...)

6. Los Pactos celebrados y los Acuerdos, una vez ratificados, deberán ser remitidos a la Oficina Pública que cada Administración competente determine y la Autoridad respectiva ordenará su publicación en el Boletín Oficial que corresponda en función del ámbito territorial.

7. En el supuesto de que no se produzca acuerdo en la negociación o en la renegociación prevista en el último párrafo del apartado 3 del presente artículo y una vez agotados, en su caso, los procedimientos de solución extrajudicial de conflictos, corresponderá a los órganos de gobierno de las Administraciones Públicas establecer las condiciones de trabajo de los

⁵ Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen testu bategina, urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartua.



funcionarios con las excepciones contempladas en los apartados 11, 12 y 13 del presente artículo. (...)

11. Salvo acuerdo en contrario, los Pactos y Acuerdos se prorrogarán de año en año si no mediara denuncia expresa de una de las partes.

12. La vigencia del contenido de los Pactos y Acuerdos una vez concluida su duración, se producirá en los términos que los mismos hubieren establecido.

13. Los Pactos y Acuerdos que sucedan a otros anteriores los derogan en su integridad, salvo los aspectos que expresamente se acuerde mantener.”

Euskal Enplegu Publikoaren abenduaren 1ko 11/2022 Legeak antzeko aurreikuspenak jasotzen ditu:

“191. artikulua.– Negoziazioa antolatzeko printzipio orokorrak.

1.– Lege honen ondorioetarako, hau da negoziazio kolektiboa: euskal enplegatu publikoen lan-baldintzen zehaztapena negoziatzeko eskubidea izatea. Euskal administrazio publikoetako negoziazio kolektiboak printzipio hauek bete beharko ditu:

a) Legezketasun-printzipioa. Enplegu publikoaren oinarrizko araudian eta titulu honetan ezartzen diren berriazko organoen eta sistemen bidez gauzatuko da negoziazio kolektiboa, Sindikatu Askatasunari buruzko abuztuaren 2ko 11/1985 Lege Organikoaren 6.3.c), 7.1 eta 7.2 artikuluetan sindikatu-erakundeei aitortzen zaien ordezkartza-gaitasuna baliatuz, eta Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren III. tituluko IV. kapituluan xedatutakoaren arabera, eta betiere oinarrizko araudian eta hura garatzeko legeetan jasotakoa errespetatuz. (...)

c) Derrigortasun-printzipioa. (...)

Negoziazioan edo g) apartatuan aurreikusitako birnegoziazioan akordiorik lortzen ez bada, euskal administrazio publikoetako gobernu-organoez ezarri ahal izango dituzte funtzionarioen lan-baldintzak, betiere aurreko itunaren edo akordioaren indarraldia amaitu ez bada, artikuluko honetako i) apartatuan ezarritako printzipioei jarraikiz. (...)

e) Publikotasun- eta gardentasun-printzipioa. Sinatutako itunak eta berretsitako akordioak Euskadiko Administrazioaren Lan Hitzarmen eta Akordio Kolektiboen Erregistrora bidaliko dira, eta organo eskudunak agindua emango du lurralde-eremuaren arabera dagokion aldizkari ofizialean argitaratzeko. (...)

g) Hierarkia-printzipioa. Administrazio-organoez beren eskumen-esparruko gaiei buruzko itunak baino ez dituzte sinatuko. Akordioak euskal administrazio publikoetako gobernu-organoen eskumenez gaiei buruzkoak izango dira, eta baliozkoak eta eraginkorrak izango badira, berriaz eta formalki onartu beharko dituzte organo horiek. (...)

h) Zuzenean aplikatzeko printzipioa. Izenpetutako itunen eta berretsitako akordioez edukia, baldin eta gobernu-organoez behin betiko erabaki ditzaketenez gaiei eragiten badiete, zuzenean aplikatuko zaie beren aplikazio-eremuko langileei, hargatik eragotzi gabe, ondorio formaletarako, dagokion erregelamenduzko araudia aldatu edo indargabetu beharra, hala badagokio. Berretsitako akordioez edukiak ez du zuzeneko efikaziarik izango baldin eta haren gaia lege edo foru-arauaren erreserbaren mende badago.





i) Indarraldiaren printzipioa. Itun eta akordioen edukiaren indarraldia, behin indarraldia amaituta, itun eta akordioetan ezarri zenaren arabera izango da, eta, alderdietako batek berariaz uko egin ezean, urtez urte luzatuko da, betiere kontrakorik erabakitzen ez bada. Itun eta akordioek, beste itun edo akordio batzuen ondoren datozenean, erabat indargabetzen dituzte aurrekoak; nolahi ere, alderdi batzuk mantendu ahal izango dira berariaz hala erabakitzen bada. (...)

3.– Legezotasun-printzipioa, aurrekontu-estalduraren printzipioa, eskumen-printzipioa edo hierarkia-printzipioa urratuz gero, erabat deusezak izango dira funtzionarioen lan-baldintzei buruzko itun eta akordioak, bai eta hitzarmen kolektiboak ere.

194. artikulua. – *Lan-baldintzen akordioak eta hitzarmen kolektiboak onartzea Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioan.*

1.– Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioako negoziazio-kolektiboan, Administrazioaren ordezkariak bete egin beharko dituzte Eusko Jaurlaritzak negoziazio kolektiborako ezartzen dituen jarraibideak eta gidalerroak, hala negoziazio-prozesua hasi aurretik ezarriak nola prozesuak dirauen bitartean ezarriak. (...)

2.– Eskumena duen gobernu-organismoak onartuko ditu funtzionarioen lan-baldintzen akordioak eta hitzarmen kolektiboak, enplegu publikoaren eta ogasunaren alorretako eskumenak dituzten sailek txostena eman eta gero.

Gobernu Kontseiluak onartuko ditu funtzionarioen eta langile estatutarioen lan-baldintzen akordioak, bai eta Administrazio orokorreko, organismo autonomoetako eta sektore publikoko partzuergoetako langile lan-kontratudunen hitzarmen kolektiboak ere. (...)

3.– Enplegu publikoaren eskumena duen sailak nahitaezko txostena egin dezan, onartzeko proposatutako akordio edo hitzarmen kolektiboa bidaliko zaio. Dokumentazio hori jaso eta, gehienez ere hamabost eguneko epean, sailak txostena emango du, zeinak aipatuko baitu negoziazio kolektiboko prozesuan eta akordioaren edo hitzarmen kolektiboaren edukian noraino bete diren legezotasun-, eskumen- eta hierarkia-printzipioak, eta noraino errespetatu negoziazio kolektiboa aurrera eramateko ezarritako jarraibide eta gidalerroak.

Ogasunaren eskumena duen sailak dagokion txostena emango du, Euskal Autonomia Erkidegoko aurrekontu orokorreari buruzko legean, dagokion hartan, horri buruz ezarritako dagoenaren arabera.

4.– Erabat deusezak izango dira lan-baldintzak edo hitzarmen kolektiboak onartzeko egintzak edo erabakiak baldin eta txostenaren izapidea egiten ez badute edo kontrako txosten bati aurka egiten badiote. (...)

Gobernu Kontseiluak onetsi zuen lan-baldintzak erregulatzeko 2010eko akordioa, uztailaren 6ko 185/2010 Dekretuaren bidez, eta Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu, 2010eko uztailaren 16an. Oraintxe bertan, indarrean dago; izan ere, 4. artikulua ezartzen duenez,

“Bestalde, luzatutzat joko da hitzarmena amaitzen den egunetik⁶ hitzarmen hau ordezkatzeko duena indarrean sartzen den egunera arte.”

⁶ 2012ko abenduaren 31, hitzarmenaren 3. artikulua arabera.



Erakunde honek dakiela, aldeek ez diote uko egin akordioaren indarraldia luzatzeari, eta akordioak ez du berariazko salaketarik jaso, testuaren edukia ondorioz gabe utzi duenik.

Bestalde, erakunde honek jakin ahal izan duenaren arabera, Gobernu Kontseiluak ez du ez berretsi, ez onetsi "Akordio baterako proposamena. Irakasle funtzionarioen mahai sektoriala (2018-05-14)" dokumentua, eta ez da Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu; hortaz, ez ditu biltzen araudiak akordioaren baliozkotasunari eta eraginkortasunari buruz aurreikusten dituen betekizunak.

Arartekoak kexagileen hitzak sartu zituen Hezkuntza Sailari bidali zion informazio-eskaeran: haien esanetan, eskaeren ezespenek ez dauka baliozko justifikazio juridikorik, akordio erregulatzailerik ez delako baliogabetu eta Gobernu Kontseiluak berretsitako eta Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratutako tresna bakarra delako. Ildo horretan, akordio erregulatzailerik ez aplikatzeko justifikazio juridikoari buruzko informazioa eskatu zuen erakunde honek.

Hezkuntza-administrazio horren erantzunean, ez zen helarazi horri buruzko gogoetarik, eta 2018an sinatutako dokumentua eta etorkizuneko negoziazio kolektiboa aipatu zituen. Hortaz, puntu honetan, Arartekoak ez dauka kontrasterako elementurik, aurreko paragrafoetan jasotakoez harago.

Egiaztapenok aztertuta, ondorioztatu dezakegun bakarra da 2018ko dokumentuak ez daukala ahalik akordio erregulatzailerikaren xedapenak aldatzeko eta, ondorioz, ezta akordioak aurreikusten duen eta hezkuntza-administrazioak aurretik aplikatzen zuen murrizketa-araubideari (adinagatik eskola-eguna murrizteko araubideari) betekizun gehigarri eta murriztaileak ezartzeko ere. Era berean, dokumentu horretan ezarritako betekizunak oinarritzat hartuta emandako gainerako xedapenak ere ez daukate ahal hori.

Hori dela-eta, 2023-2024 ikasturterako adina dela-eta eskola-eguna murrizteko egin diren eskaeren ezespenei, zeinen argudioa baita interesdunek borondatez erretiratzeko aukera dutela, ez daukate behar besteko oinarri juridikorik; hortaz, lehenbailehen berrikusi behar dira, 2023-2024 ikasturterako ondorioekin.

5. Erakunde honek ez du ebazpen hau amaitu nahi, aztertutako figurari buruzko gogoeta batzuk sartu gabe, egoki argitu ahal izan ditzagun figuraren testuingurua nahiz helburuak.





Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoaren 105.2 artikulua irakasleen aitortzari, babesari eta balorazioari buruzko kapituluaren barruan sartzen du hizpide dugun murrizketa-figura, eta honako hau xedatzen:

“Las Administraciones educativas, respecto al profesorado de los centros públicos, favorecerán: (...)

e) La reducción de jornada lectiva de aquellos profesores mayores de 55 años que lo soliciten, con la correspondiente disminución proporcional de las retribuciones. Podrán, asimismo, favorecer la sustitución parcial de la jornada lectiva por actividades de otra naturaleza sin reducción de sus retribuciones.”

Adinagatik eskola-eguna murrizteko aukera, beraz, zentro publikoetako langileek egindako irakaskuntza-lana aitortu eta baloratzeko neurri bat da.

Hezkuntza Sailaren erantzun-txostenak kexaren alderdi horri buruzko gogoetarik egiten ez duenez, Arartekoaren ustez, egiazki, ezin daiteke erraz azaldu oinarri hori duen figura batek (behintzat, oro har 60 eta 63 urte artean daudenei aplikatzeari dagokionez) oinarria galtzea adin hori gainditzen dutenentzat: adin hori gainditzen dutenak aitortzarik, babesik eta baloraziorik gabe geratuko dira, bakar-bakarrik borondatez erretiratzeko aukera dutelako, nahiz eta azken inguruabar horrek zerikusi txikia izan edo zerikusirik ez izan arauak aipatzen duen figuraren justifikazioarekin.

Era berean, balioesten badugu murrizketari esker arindu egin daitezkeela adinak eskola-jardueran –irakaskuntzaren barruan– sorrarazten dituen zailtasunak, ez du ematen arrazoirik dagoenik zentzuz argudiatzeko zergatik har daitezkeen zailtasunok kontuan 60 eta 63 urteen artean eta ez adin horretatik aurrera, logikak esaten duenean adin hori gainditutakoan zailtasunek gora egiten dutela.

Azaldutakoaren arabera, borondatezko erretiroa hartzeko aukera edukitzea faktore erabakigarria bada adinagatik eskola-eguna murrizteko aukerari heltzeko, kalte egiten zaio eragindakoak ohiko erretirorako oro har ezarrita dagoen adinera iritsi arte zerbitzu aktiboan jarraitzeko aukerari, eta, erakunde honen iritziz, murrizketaren izaera eta helburua hutsaltzen dira, borondatezko erretiroa interesdunaren ahala baita eta haren egoerari, perspektibei eta interesei erantzuten baitie: borondatezko erretiroak ez dauka loturarik irakaskuntzarekin, ezta murrizketak legez inspiratzen duen aitortzarekin ere.

Horregatik guztiagatik, gomendio hau egiten dugu, otsailaren 27ko 3/1985 Legeak –erakunde hau sortu eta arautzekoak– 11 b) artikuluan ezarritakoaren arabera:





GOMENDIOA

Berrikus ditzala 2023-2024 ikasturtera begira adina dela-eta eskola-eguna murrizteko egin diren eskaerei emandako ezespenak eta, bat etorrita 2023-2024 ikasturterako lan-baldintzen akordio erregulatzailan jasotzen den araubidearekin, eskaerok baimendu ditzala. Sail horrek eskaerok ezetsi ditu, interesdunek aukera dutelako borondatez erretiratzeko.

